

Errezil, 2009ko martxoaren hogeita hamaikan

Agur t'erdi:

Gutun honen bidez hainbat berri eman nahi dizkizuegu:

****Dakizuen bezala urtean zehar hainbat aldiz TRASTE ZAHARREN BILKETA egiteko kamioia pasatzen da, herritarrak bidegurutzeetan uzten dituzuen altzari, elektrogailu, etab. jasotzeko. Aurtengo bilketarako egunak hauexek finkatu dituzte:**

Apirilak 17, uztailak 10 eta Urriak 9

****Gizarte Langileak ondoan eransten dizuegun informazioa eman nahi dizue, pentsio osagarriari buruzkoa.**

****Bestalde, gutun honekin batera ONA txartelaren triptiko bat eransten zaizue. ONA (Osasun Nortasun Agiria) Osasun Txartel Indibiduala ordezkatzen duen txartel berria da. Txartel honek, Osakidetzako, Udaleko eta Diputazioko hainbat zerbitzuetarako balio du besteak beste eta ondorengoak egiteko balio du: medikuaren kontsulta internet bidez adosteko, mediku aldaketa eskatzeko, errenta aitortpena egiteko, gidabaimeneko puntuak kontsultatzeko etab.**

ONA txartela, Borondegian dagoen KZgunean egingo da. Horretarako Osasun Txartel Indibiduala eta NAN aurkeztea nahikoa da. Txartel hau egiteko ordutegia ondorengoa da:

Apirilean: Astelehen, astearte eta ostiral arratsaldetan, 16:00tatik 20:00tara.

Aste Santuak direla eta Apirilaren 17tik aurrera izango da

ALKATEAK

Iñaki Oiartzabal